BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4382

EBAZPENA, 2013ko irailaren 4koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Befesa Aluminio SL, enpresa aldatzeko proiektua ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduratik es pasatzeko erabakitzen duena. Enpresa horren jarduna hauxe da: aluminio primarioa ekoizteko fabriketan, aluminioa eraldatzeko eta akabatzeko instalazioetan eta, oro har aluminio-galdaketan sortzen diren hondakinak tratatu, berreskuratu eta birziklatzeko jarduera, Erandiko Udalerrian (Bizkaia).

2013ko maiatzaren 29an, Befesa Aluminio, S.L. enpresak honako agiria (ingurumenari buruzkoa) igorri zion Ingurumen Sailburuordetzari: antolakeatren arloko aldaketen ondorioz produkzioa urteko 50.000 t-tik 57.000 t-ra pasatzeko proiektuari buruzkoa, zeinaren helburu baitzen ingurumen-organoari eskatzea adieraz zezala ia proiektu hura ingurumen inpaktua ebaluatzeko prozeduratik pasatu behar zen ala ez.

2008ko apirilaren 30eko ebazpen bat dela-eta, Proiektua Ingurumeneko Baimen Bateratuaren izapidetik pasa behar da.

Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legeren testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuarekin bat etorriaz, aipatu arauaren II. eranskineko k epigrafeko 9. taldean jasotako proiektuak ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluaziotik pasa beharko dira, baldin eta kasu bakoitzean hala erabakitzen badu ingurumen-organoak, betiere bat etorriaz aipatu legegintzako errege dekretuko III. eranskinean ezarritako irizpideekin, eta aldez aurretik kontsulta eginda proiektuak eragiten dien administrazio, pertsona eta erakundeei.

2013ko ekainaren 5ean, ingurumen-organoak galdetu zien proiektuaren eragina izango zuten administrazio eta erakundeei ea jarduera horiek ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura bete behar zuten ala ez, eta, hala balitz, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanak nolako edukia eta gutxieneko irismena izan beharko lituzkeen.

Honako erakunde hauek izan dira erantzuna eman dutenak: Eusko Jaurlaritzatiko Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila eta, azkenik, Erandioko Udala.

Eusko Jaurlaritzatiko Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak zehaztu du ez dela beharrezkoa, osasun-arloko zehaztapenik egitea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak egindako txostenak egiaztatzen du ez daudela kalifikatutako eta inbentariatutako ondasun arkitektoniko eta arkeologikoak, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen arabera.

Erandioko Udalaren txostenak apitatzen du beharrezkoa izango litzateke sakontzea hainbat alderdi, ekopizpena handitzeari lotuak direnak.

Beraz, jaso diren erantzunetatik ez da ondorioztatzen ingurumenari kalte adierazgarririk egingo denikk, eta, ondorioz, ez da beharrezkotzat jotzen proiektuak ingurumenaren gain izan lezakeen eragina ebaluatzea.

Proiektuak ingurumenaren gainean izan dezakeen eragina neurtze aldera, eskura dagoen informazioa aztertu da. Azterketa hori egiteko, Proiektuek ingurumenean duten eraginaren eba-

luazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskineko irizpideei heldu zaie. Azterketaren emaitza honako hau izan da:

Proiektuaren ezaugarriak.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, handitzearen ondorioz ez da egongo jardueraren aldaketarik ezta oro har prozesuarenik ere.

Aurreikusitako handipena urteko egun gehiagotan lan egiteko da, enpresaren antolamendu aldaketak direla eta.

Eragin izan dezakeen ezaugarriak.

Proiektuaren izaera eta ezaugarriak ikusirik, inpaktu handinena honako hauek sortuko dute: sortutako hondakinen bolumena handitzeak, isuri atmosferikoek (partikulak, zarata, eta abar) eta isuru kutsatzaileek.

Urteko produkzioa handitzearen ondorioz, ez dira sortuko: enpresari emandako Ingurumeneko Baimen Bateratuan jasotakoez besteko hondakinik.

Isuri atmosferikoak handitzearekin, ez dira agertuko emisio-gune berriak, eta daudenak ez dira aldatuko.

Befesa Aluminio Bilbao SL enpresaren isuriak (hozteko urak, sanitarioak eta jariatze-ura) Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sare integralera doaz; alderdi hori ez da aldatuko.

Behin aztertuta proiektu honen ezaugarriak, Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideak, eta kontsultetan jasotako erantzunak, ondorioztatu da proiektuak ez duela izango ingurumenaren gaineko eragin txar nabarmenik, betiere Ingurumeneko Baimen Bateratuan dauden eta sustatzaileak proposatu dituen neurri babesleak eta zuzentzaileak betetzen badira.

Organo honek du ebazpen hau emateko eskumena, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko egitura organikoa eta zereginak finkatzen dituen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren arabera.

Aintzat hartu dira Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko egitura organikoa eta zereginak finkatzen dituen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretua. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa ez egitea Befesa Aluminio SL, enpresa aldatzeko proiektuari, bere jarduerari dagokionez, hau da, aluminio primarioa ekoizteko fabriketan, aluminioa eraldatzeko eta akabatzeko instalazioetan eta, oro har, aluminio-galdaketan sortzen diren hondakinak tratatu, berreskuratu eta birziklatzeko jarduera, Erandioko udalerrian (Bizkaia).

2.– Ebazpen honen edukia Befesa Aluminio SL enpresari jakinaraziko zaio, bai eta Erandioko udalari ere.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

4.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 4a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.